

**AITA GABIREL JAUREGIREN
OMENALDIA**

Aramaio, 1995-04-01

GABIREL JAUREGIRI OMENALDIA

Aramaiio, 1995-04-01

*Jose Ramón Uribe,
Aramaioko alkatea*

Eguerdion denori eta ongietorriak.

Gaur hemen batu gara GABRIEL JAUREGI jaunari omenaldi bat eskaintzeko, dakizuen moduan, orain 100 urte jaio eta 50 hil zena.

Omenaldi honetan parte hartu dutenei eskerrik asko:

— Euskaltzaindia,

— Karmeldarrei,

— Arabako Foru Aldundiari,

— Aramaioko herriari. Azken hauei antolaketa lanengatik.

Euskal Gobernuari, Arabako Foru Aldundiari, idazleei, prentsa eta abarrei etortzeagatik eskerrik asko ere bai. Denoi eskerrik asko.

Orain, Jean Haritschelhar-ek, euskaltzainburuak, hitza hartuko du.

ARAMAIOKO HIZKUNTZ ONDAREAZ

Aramaio, 1995-04-01

Patxi Salaberri Muñoa

Eguerdi on, jaun-andreok!

Ohore handia da niretzat Gabirel Jauregiren omenaldian egotea eta Aramaioko hizkuntz ondareaz mintzatzeko aukera izatea.

Halere, egun pozgarri eta eguzkitsu honetan badirudi niri egokitu zaidala hodei ilunak zeruan adierazten ibiltzea. Espero dut, dena den, ene hitz hauek eguzkia estali baino, laino beltzok ortzi-hertzetik jaurtikitzeko eta egun honen ondokoak pozgarriago bihurtzeko baliagarriak izatea.

Zeren hodei beltzen pareko baitira Aramaiok azken urteotan erakutsi duen hizkuntz egoera eta aramaioarrok oraindik orain erakusten dugun joera linguistikoa.

Duela 24 urte, Euskaltzaindia hemen bertan bildu zenean, Aita Villasantek honako hitz hauek zuzendu zizkigun aramaioarroi:

“Baina Euskaltzaindiak, gaur Arabara etorri denean ez du topo egin behinolako oroigarri batzuekin edo euskal ondakin hil batzuekin. Ez ditu hemen hezur iharrak aurkitu. Ez. Aramuoko bailara hontan euskera bizi hizirik dago. Zutik, bizkor eta zoli irauten du gure mintzairak Arabako txoko honetan. Bejondeizuela. Euskaltzaindiak bere aitorra, bere eskerrona agertu nahi dio gaur Araban euskaltasunaren testigurik finena den alderdi honi.

[...]

Badugu gaur euskaldunok arrisku hat, tentazio gogor bat: aurrerapenaren izenean, zibilizazio berri eta orokorraren aitzakiaz, gure mintzaira arbuizatzen tentazioa. Engainu ikaragarri bat litzake. Herri guztiek bere nortasuna, bere izakera eta kultura berezia gordetzen duten bitartean, guk kontrara jokatzeko. Euskalerrriak bere nortasuna ukatu eta bere izateari traizio egingo balio, gizarteko zibilizazio eta kulturari mesede ez, baina kalte egingo lioke. Ez la hizkuntza bakarrik. Hizkuntzarekin batean loturik dijoaz izpirituaren ondasun, dohain eta berebiziko balioak. Eta hoiek alferrik galtzeko ez dugu eskubiderik.”

Hitz egoki neurtuak haiek, Aramaion mendez mende hain irmo mantenduz zen hizkuntza leialtasunari iristen hasiak ziren arriskuen berri ematen ziotenak!

Eta halaber profetikoak, gaur eguneko egoera soziolinguistikoak erakusten duen legez.

Hurrengo minutuetan, errealitate hits hau ahalik laburren eta argien azalzen saiaturiko naiz, betiere horrelakoetan herriko semea izateak etxe barruko arazoak maitekiro aztertu, baloratu eta kritikatzeko ematen duen zilegitasunarekin.

* * *

Ezaguna da Euskal Herriko hizkuntz egoera orokorra hipotesi, aurreiritzi eta "gutxi gora-behera" bezalako apreziazioekin aztertua izan dela urte askotan barrena. Lan benetan sistematikoak, Komunitate Autonomo honi dagokionez behintzat, euskal administrazioak burututako errolda edo zentsuen bidez etorri dira, hizkuntz egoerari buruzko datuak modu aski sistematikoan jasotzen zirelako. Askok gogoratuko duzuen bezala, hiru izan dira egindako erroldak: 1981ean, 1986an eta 1991n. Hiru horietan agertzen diren emaitzez baliatuko naiz gure herriko hizkuntz egoera eta joerak perfilatzeko.

Egia esan, datu horietatik isurtzen diren emaitzak ez dira zeharo harrigarriak, ez. Patxi Uribarrenek konstatazio berdintsua egin zuelako duela 20 urte, oraindik datu objetiborik ez geneukanean.

Baina kezkarriak bai. Euskal Herri guztian euskalduntzearen aldeko apostua egin denean (eta gogoratu Errioxa aldean, Arabako muga administratibo urrunenetan dauden Lapuebla Labarka, Elzieko, Oion, eta hainbat herritan euskalduntzeko egiten ari diren ahaleginak!), hemen, Aramaion, euskara berez ematen zaigunean, mantendu eta landu baino egin behar ez dugunean, zinez pentsa daiteke ea ez ote garen euskara alboratzen hasi. Ditugun datu guztiek geure-geurea dugun hizkuntzarekiko leialtasunik eza adierazten dute: etxean ikasitako euskara gero eta gutxiago erabiltzen da. Erdara, gaztelera, gero eta erosoagoa egiten bide zaigu gure harremanetarako. Eta hau latza da, ikaragarria benetan!

Baina, beste ezertan baino lehen, has gaitezen hizkuntz ondarea nola zabalten den ikusten, zenbat aramaioarrek dakiten euskaraz azaltzen alegia.

Herri askotan suertatu den hustutze-prozesuarekin batera, 1981etik 1991ra bitartean Aramaion biztanleria beherantz joan bada ere (bi urte eta gehiagoko 1.400 biztanletik 1.287ra jaitsi da), biztanleen hizkuntza gaitasunari begiraturaz gero, datuak bestelako berezitasunik erakusten dute.

Halaber, 1986tik 1991era bitartean, Euskal Autonomi Elkartean ez bezala, euskaldunen kopurua jaitsi egin zen Aramaion, hots, 1.174 izatetik (% 89,07) 1.106 izatera (% 85,94).

1991ean, herriko 65 erdaldun hutsek % 5a baino ez zuten osatzen oro har.

Bestalde, "Ia-euskaldunak" multzokoak lehenengo bost urtetan mantendu egin ziren portzentualki, 1986tik aurrera ia lau puntutako gorakada izan zutelarik (% 9a). Kasuistika zabala dugu multzo honetan: euskaraz ulertu bai baina hitzegiten ez dakitenak (gauza arrunta Aramaio bezalako herrietan); euskaraz ondo irakurri bai, baina mintzatu ez; etab. azken batean, eta muturretako kasuak baino ez aipatzearren, multzo honetan sartu ohi dira batetik euskalduntzen, hau da, euskaraz ikasten ari direnak (euskaldunon multzora datozenak, integratu nahi dutenak, alegia) eta, bestetik, euskara galtzen ari direnak (badoazenak, gaztelera bizi nahi dutenak). Eta hau da azken urteotan Aramaion eman den fenomenorik gaitzesgarriena ulertu bai, elkarrizketa edo hitzaldiaren haria jarraitzeko arazorik ez, baina elkarrizketan parte hartzerakoan erdara ez-painetan!

Datu hauekin, egia da, ematen du euskararen altxorra edo ondarea ondo bermatuta eta garantizatuta dagoela aramaioarren artean, euskalduna baita biztanlegoaren % 86a.

Halere, hemen bada bestelako galderarik egiteko aukera ondarearen erabilera nolakoa den jakiteko. Eta horretaz arituko gara ondoko hitz-lerroetan. Hamaika bider entzun izan dugun talentuen parabola ospetsu hark badu hemen tokirik. Izan ere, zer egiten du Aramaio herriak hizkuntz ondare horrekin? Erabili egiten du, landu egiten du? Zer egiten du?

Ildo horretatik, alfabetatzea eta erabilpena ditugu elementurik adierazgarrienak galdera horiei erantzun ahal izateko, batetik euskararen ezagupen hutsa baino gehiago direlako eta, bestetik, hizkuntzaren instrumentalizazio erreala suposatzen dutelako.

1. ALFABETATZEA

Alfabetizazioaz bi hitz. Inoiz baino alfabetatugabe gehiago dago herrian. Eta ez dira analfabetoak, kontuz! (euren burua benetan analfabeto gisa kontsideratzen dutenak bost baino ez ziren 1991n). Alfabetatu gabekoen multzo honetan erdaraz alfabetatuak direnak, baina euskaraz irakurtzen eta idazten jakiteko inolako ahaleginik egin ez dutenak sartu behar ditugu. Eta asko ez izan arren, portzentualki gorantza joan den joera, tendentzia dugu Aramaion (1986an % 5,36 izatetik 1991n % 8,14 izatera).

Alfabetatuek, aldiz, beherantza egin dute epe berean (1886an % 42 izatetik 1991n % 39,60 izatera).

Bitxiago bilakatzen dira fenomeno hauek Euskal Herrian gertatzen den dinamikarekin erkatzen direnean, erabat kontrajarriak agertzen baitzaizkigu joera orokorra eta Aramaion antzematen dena. Izan ere, Euskal Herriko euskaldun

alfabetatuen kopuruak igoera nabarmena erakusten du: 1981ean % 46,5, 1986an 62,08 eta 1991n 67,86. Ikusten den bezala, alfabetatze arloan Aramaiok kontrako joera darama, eta modu nabarmenean gainera.

Zail da ulertzen hain ardurak gutxi betidanik euskaldunak direnen artean, batik bat Euskal Herri guztian alfabetatzeko, prentsa eta liburuak euskaraz ateratzeko egiten ari den ahalegin ikaragarria ikusita. Ezin uler daiteke, esaterako, hemen, % 86a euskalduna den herri honetan Errioxako edozein herritan baino euskarazko egunkari gutxiago irakurtzea.

2. EUSKARA ARAMAIOARREN EZPAINETAN

Aramaiorek *etxean* hitzegiten omen duten hizkuntzari buruzko zenbakiek funtzionamendu-arazo larri samarra adierazten dute, % 67,33 baino ez dute euskaraz egiten. Honen arabera 250 bat euskaldunek erdaraz egiten dute *etxean*, eta arazoa ez da familiak linguistikoki mistoak direlako (erdalduna + euskalduna).

Bestalde, EKB-k 1993an burututako ikerketaren bidez antzeman daitekeenaren arabera, Aramaioko bizilagunen hizkuntz ezagutza edo gaitasuna *kaleetatik zehar* hitzegiten ohi dutena baino dexente altuagoa da.

Azken erroldan (1991ekoan, alegia) batuz besteko ezagutza % 85,94 baldin baten, 1993ko erabilpen maila % 57,81ekoa zen, hogetita hamar puntutako desoreka hizkuntza mintzatuaren kaltetan. Benetan kezkarria egoera. Are kezkarriagoa gogoan hartzen bada hizkuntz leialtasun gutxien erakusten duen adinak, hots, herriaren bizitza eta dinamika sozio-politikoak, ekonomikoak eta kulturala bideratzen eta sostengatzen dituenak eta kopuruan ere adin-talde zabalena denak (25-64 urte bitartekoa 1991n 742 pertsonak osatzen zuten) hain zuzen, nabarmenki diharduela gazteleraren aldeko apostua egiten. 25-64 urte bitarteko jendeak (herriko biztanle guztien erdia baino dexente gehiago, alegia) kalean hitzegiten duen guztiaren % 40,21 baino ez du euskaraz hitzegiten.

Euskal Herrian euskararen kale-erabilpenari buruz ditugun datuak kontuan harturik, eta Aramaioko biztanlegoaren hizkuntz ezagutza edo gaitasun maila parekoa edo altuagoa duten herrietan antzematen den erabilpenarekin erkatuz gero, aramaiorek hizkuntzarekiko leialtasun(ik ez)a Nafarroako Araitz eta Etxalarreko biztanleen parekoa da ia herri euskaldun huts izatetik erabilpen maila berdintzura iritsi baitira hirurak (Etxalar: Ezagutza [1991] % 90,42 eta Erabilpena [1993] % 54,93; Araitz: Ezagutza [1991] % 96,59 eta Erabilpena [1993] % 56,22).

Datuak begi bistan, badirudi gaur egun Aramaioko kaleetako hizkuntza euskara ez den beste bat bihurtzen ari dela.

Sintomak dira hauek guztiak. Gaixotasun baten sintomak. Oreatuta ez da-
goen gizarte baten gaixotasunaren sintomak. Bere hizkuntza propioan eroso
sentitzen ez den gizarte baten gaixotasunaren sintomak.

Eta sintoma horiek ganditu ahal izateko, euskara Aramaion biziko bada,
derrigorrezkoa da hiztunok geure hizkuntzarekin dugun erantzukizunari lehen-
bailehen heltzea.

Badakit ez dela hau ez parada ez eta une egokiena ere hizkuntza tentsioez,
erremedioez edota hizkuntza politikaz iharduteko. Are gutxiago, euskararen al-
deko politika konkretuak gauzatzeko moduez mintzatzeko. Horretarako bada
nik baino hobeto eta sakonago hitzegin dezakeenik.

Halere, ez nuke bukatu nahi hizkuntzaren adeko akuilua zertan letzakeen
adierazi gabe.

Lehenik eta behin, norberak hizkuntzarekin duena hots, hizkuntza leial-
tasuna, hau da, bakoitzak euskararekin eduki beharko genukeen begirunea, fi-
deltasuna, errespetua. Hizkuntza leialtasuna norberak bere hizkuntza bere sen-
titzea da eta horrela erabiltzea. Hizkuntza leialtasunak hizkuntzarekiko
harreman "normaldu" bat baino ez luke adierazi behar, hizkuntzaren erabilpen
normala etxean, kalean, lanean, lagunen artean, administrazioaren aurrean,
etab.

Baina, kontuz, ezin izango genuke euskararen erabilpen faltaren ardura edo
erantzukizun guztia norberaren gainean bakarrik jarri. Hizkuntza leialtasuna
edo fideltasuna, hiztun bakoitzak duen ardura ezin da traizio pertsonal gisa
kontsideratu, gauza jakina da-eta hiztunon gainetik dauden erakundeek lan es-
kerge egin dezaketela eta egin beharko luketela norberaren hizkuntza leialta-
suna behar bezala bideratzen eta betetzen joan dadin.

Eginkizun horietariko lehena, zalantzarik gabe, ardura politikoa duen Uda-
larena da. Izan ere, Udalari dagokio, hizkuntza politikaren ardura daramaten
agintariekin batera, hizkuntz erabilpenaren desoreka frenatzeko eta euskararen
erabilpena areagotzeko plan serioa eta politika zehatza definitzea.

Horrezaz gain, ezinbestekoa litzateke egoera berdintsuan dauden beste he-
rri euskaldunekin ere koordinatzea eta bateratsu jokatzea. Eta honetan ez da
ezer asmatu behar. Dagoeneko badira Euskal Herrian zenbait herri euskaldun
horretan buru-belarri lanean eta oso esperientzia interesgarriarekin gainera,
Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateaz ari naiz. Zinez pentsa dezakegu es-
perientzia desberdinak aztertzeko, baloratzeko eta eginkizunak koordinatu eta
bultzatzeko balio dezakeela UEMAK.

Borondate politikoa planifikazioa eta beste herri euskaldunekiko koordi-
nazioa, beraz, behar ditugun faktore garrantzitsuenak.

Hortik aurrera, errazagoa, samurragoa izango da hizkuntza transmisioa zaintzea, alfabetatze lanak egitea, kaleko erabilpena bermatzea eta euskaraz ez dakienari gure komunitatean integrazteko bideak eskaintzea.

Bere hizkuntza baloratzen eta maitatzen duen herri batek gizarte linguistikoki “normala” eta integratua izatera iristea izan beharko luke helburu, hizkuntzarekin identifikatzera ailegatzea, hizkuntza oinarri gisa izatera, hizkuntzaren inguruan komunitatea sentitzera azken batean. Eta horretarako ezinbestekoak dira ausardia eta irudimena. Ausardia bestek egiten ez dutena ere egiteko, eta irudimena planteamendu eta ekimenak modurik erakargarrien eta efektiboenean burutzeko.

Bukatzeko, bi hitz.

Euskal Komunitate Autonomoaren bihotz-bihotzean dago Aramaio, eta bihotz gisa, neurri batean behintzat bizigarri den euskal odola mugitzea dagokio gure herriari, erantzukizun handia egokitu baitzaio gure gizartean, batik bat Araban: eskualde euskaldun bakarra izateak besteen eredia izatera behartzen du, besteen dinamika euskaltzalearen motorea, benetako erreferentzia, arrazoirik gabeko eraso guztien aurkako sakoneko “arrazoia”.

Euskarak gure artean aurrera egingo badu, ezin egon gaitezke lozorroan, beste herriek guk baino gutxiago dakitela eta lasai. Euskararen gurditik tiratzea dagokio Aramaioko herriari. Aramaiori eta bera bezalako herri euskaldunei beste edozein herriri baino askoz ere gehiago eska diezaieke Euskal Herriak. Eta Aramaiok gertu egon beharko luke erantzuteko.

Eta jakina, horrek ez du suposatzen inolako ahalegin berezirik. Aramaiori eskatu behar zaiona da, azken finean, edozein erdaldunek euskalduntzeko egiten duen ahalegina berak ere egitea ez euskalduntzen, noski, baina bai euskaldun izaten, euskaldun irauten, euskaldun izan nahi duten beste guztien erreferentzia irmoa bilakatzen.

Hori baino ez ... eta hori guztia, aldi berean!

Mila esker.

ARAMAIO. BIZKAIERA

Aramaio, 1995-04-01

Gotzon Garate

Egun on, Aramaioko jaun-andereok:

Jauregiren merituak gogora ekartzeko bildu gara gaur hemen. Jauregi Aramaiokoa zen. Eta hain zuzen ere, Aramaio Euskal Herri osoan badu toki berezi bat.

Hasteko, Araba osoan Aramaio da euskaraz egiten den herri bakarra. Nik bihotzez zorionak ematen dizkizuet. Zuek zintzo eutsi diozute gurasoengandik hartu dugun hizkuntzari.

Euskara da, inongo dudarik gabe, Europako hizkuntzarik zaharrena. Gu, euskaldunok, gara benetan lehengo europarrak. Beste europarrak geroago etorri dira.

Orain dela gutxi, *Time*-k, New Yorko aldizkari, errebista famatuak, hauxe esaten zuen: Cro-magnonak euskaldunen arbasoak ziren. Euskaldunak Cro-magnonen ondorengoak dira. Harrigarria da —esaten du *Time*— euskaldunen hizkuntza. Ez du beste hizkuntzekin harremanik.

Gure arbasoak orain 15.000 edo 20.000 urte bizi ziren Europan eta Euskal Herrian. Zuek, Aramaioko euskaldunok, zintzo eutsi diozue zeuen euskalduntasunari.

Hizkuntza da herriaren ezaugarri nagusia. Euskal Herria euskarari gabe ez da Euskal Herria. Erdara nagusitu ezkerro Euskal Herrian Erdal Herri bihurko litzateke.

Eta baduzue harrotzeko beste motibu bat. Ni 28 urtean nabil zazpi probintzietako baserrietan, euskara aztertzen, esakerak eta errefrauak biltzen.

Eta egiaz egiazki esango dizuet. Niretzat, egungo egunean, zazpi probintzietatik euskararik onena Aramaio inguruetan egiten da. Hau da, Aramaion, Mondragoien, Aretxabaletan, Oñatin, Eskoriatza eskualdeetan.

Ez dizuet hau esan lotxingatzeko, zuriketari egiteko. Aramaio eta inguruetako euskara ez da goxoa belarrirako. Goierriko, Tolosako eta Nafarroako euskara belarrirako askoz goxoagoa da.

Zertan da, orduan, ona Aramaio inguruko euskara?

Egituran, estrukturatan. Aramaiok euskara azal latza du baina beste dena ona. Aramaioko euskara neskatila osasuntsu bat bezala da. Azala ez du horren fina, baina burua, bihotza, birikiak, urdaila, den dena ona.

Gaurko egunean, egiturari dagokionez, bizkaiera da euskararik aberatsena. Behar bada, Euskal Herriaren muturrean dagoelako. Aramaioko euskara bizkaiera da eta baditu molde batzuk Bizkaiko beste eskualdeetan galdu direnak. Beraz, Aramaioko euskara ona da oso.

Bizkaierak gipuzkerak baiño askoz hobeto bereizten ditu:

-a organikoa, familiaren alor semantikoa (*anaia* eta *neba* bereizten ditu).

Erreflexiboak (*neure*, *zeure*...), intensiboak (*neu*, *zeu*...), erakusleak (hemengo adiskide maiteok, hango adiskide maiteak), konpletibak *-na/-la* (etorri *dana* badaki/etorri *dala* esan dau), eta *-la/-nik* (etorri *dala* usten dot/Ez dot usten etorri *danik*).

Konjuntzioak oso ederki ipintzen dira bizkaieraz azkenean: “Nik ori ekarri *arren*”, “Nik esan neutsan *baña*”, “Nik esan neutsan *barren!*” (= bai arren). “*Nahiz* ori ekarri” askoz erdaldunago da.

Bizkaieraz oso ondo bereizten dira *nor* eta *zein*, *iñor/beste*. *Iñor besteak orokorki* da. *Beste* jazargoan erabiltzen da: “Ori *iñoren* lepotik bizitzeko ona!”. “Batzuk onak dira, *besteak* txarrak”.

Oso diferente dira bizkaieraz “Etxe *baten* egon naz” eta “Etxe *batean* ondo eta *bestean* txarto dagoz”.

Bizkaieraz biziki ongi bereizten dira *bere/bera(re)n*. “Amak *bere* umia maite dau. *Bera(re)n* aitzak ez. Latinez ere orrela: “Mater filium *suum* amat; *illius* soror non amat eum”.

* * *

Eta zer du Aramaio inguruko euskarak beste tokietako bizkaierak, Marikiñakoak, adibidez, ez dauana?

Etengabe erabiltzen dituzuen aditz-sustantibo moldeak:

“*Adiketari* dot”, “*pentsaketari* dabe”, “*zainketari* dogu”, “*ifinitzu* esnea *beroketari*”, “*ondo geldiketari*”, “*illunkerari*”, “*ezkondukerari*”, “*jokerari*”, “*alabetari* dozu”, “*batonbatek* bere burua *abonetari* badau”, “*asko kostetari* dau”, “*gomutetari* naz”, “*preguntien* joaten da Erromara” eta orreen antzeko moldeak sustantibo moldeak dira.

Guk “aditzen dut”, “pentsatzen dut”, “ifini zazu esnea berotzen”, “ondo gelditzearren”, “ezkontzean”, “preguntatuz” esaten dogu. Gure moldeok erro-manizatuago dira.

-*keta* sustantibo molde orreetatik guri banaka batzuk bakarrik gelditu jakuz: “Urketan da”, “orrazketan diardu” eta horren antzekoak. Ez gerundioaren ordezekoak egiteko, baina.

Aramaio, Mondragoi, Oñati inguruetako euskerak, beraz, Gipuzkoako alderdi onak, Bizkaiko molde paregabeak eta orreetaz gainera eskualde orretan bakarrik aurkitzen diren berezitasun aberasgarriak ditu.

Eutsi bada, zeuen euskara eder horri. Euskal Herri osoari mesede handia egingo diozue. Zuen euskara galduko balitz Euskal Herria galtzaile aterako litzateke.

AITA GABIREL JAUREGI

Aramaio, 1995-04-01

Julen Urkiza

1. BIZITZAKO BERRI BATZUK

Euskal idazle hau Aramaioko (Araba) Etxaguen auzoan jaio zen. Gurasoak Timoteo Jauregi, Goikorrota baserrikoa eta Sebastiana Uribarren, Uribarren baserrikoa izan zituen. Guztira 12 neba-arreba izan ziren. Bateo-liburuan agerienez Luciano izena jarri zioten; geroago, karmeldar egin zenean, Gabirel izena hartu zuen.

Hamalau urte zituela (1909) joan zen batxilero-ikasketak egitera Larreako Karmeldarren ikastetxera, urte t'erdia gazteago zuen Jose (Angelo) anaiarekin batera. Karmeldar egin ziren anaia biak eta batera egin zituzten ikasketa-urte guztiak.

Larreako joan zeneko, euskara hutseko giroan bizi izan ostean, ondo finkatuta zeukan euskara. Ez zuen, gainera, bertan erdal girorik izan. Euskara irakaskuntzan barne sartuta zegoen ondorengo beste gai hauekin batera: Latina, Gaztelera, Erretorika, Literatura, Latinezko idazkera, Gaztelera-ko Kaligrafia, Dibujoa eta Gimnasia.

1913.eko uztailaren 9an, 18 urte zituela, eskatu zien karmeldarrei Larreako nobiziatuan onartua izatea. Bertan urtebete egin ondoren, 1914.eko abuztuaren 6an egin zituen erlijio-botuak. Jarraian, urte bat (edo bi) Markinan batxilerra egiten eta filosofiako gertatzen. Ustez hemen hasi zen zientzia gaiak aztertzen. Filosofiako lehen bi ikasturteak Burgosen egin zituen eta hirugarrena Gasteizen. Hemen, fisika, matematika eta natur zientziak sakontzeko aukera izan zuen. Gero, teologia, lehenengo hiru urteak (1919-1922) Bilboko Begoñan, eta azkena (1922-1923) Kalagurrin. 1922.eko irailaren 17an sagaratu zuten apaiz Iruñean. Ikasketak amaitu eta aldi laburrak *Monte Carmelo* eta *Obra Máxima* aldizkarietarako lanean, hurrenez hurren Burgosen eta Iruñean.

1924.ean Gasteizeko karmeldarren filosofia-ikastetxeko irakasle izendatu zuten, eta bertan iraun zuen 1936.ean guda sortu zen arte. Han Naturaren Historia, Matematikak, Filosofiaren Historia, Arkeologia, Fisika eta Kimika irakatsi zituen. Urte horietan harreman estuak izan zituen Gasteizko seminarioan

bizi izan zen Jose Migel Barandiaren ikerlari ospetsuarekin. Gabinete on bat egiten ahalegindu zen. Argazkigintza ere jorratu zuen, batez ere gabinetarako dirua lortzeko. Natur Zientzietako ikasturte bi gainditu zituen Oviedoko Unibertsitatean. Udako oporraldietan nahi zuten ikasle euskaldunei euskarako eta zientzietako eskolak ematen zizkien euskaraz.

Gerrak Aramaion harrapatu zuen eta bertan egin zituen 10 hilabete inguru parrokia-lanetan. 1936.eko urriaren 28an itzultzaile ofizial izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak. 1937.eko maiatzean berriro Gasteizera itzultzerakoan, irakaskuntzatik aldendu eta Markinara bidali zuten, eta han hilabete batzuk egin ostean, Larreara. Bertan bizi izan zen pastoraltza-lana eta etxeko ekonomiaren ardura zituela, 1945.eko otsailaren 2an hil zen arte.

2. EUSKAL IDAZLEA (1932-1936)

Aita Gabirel, 1931.ean hasi zen zientzia alorreko gaiak euskaraz argitaratzen karmeldarren *Karmengo Argia* aldizkarian. Era askotako gaiak jorratu zituen, beti euskara erraza erabiltzen ahaleginduz. Geroago, aldizkarian hasitako bidetik aurrera egin nahiean, zientzia alorrean eginiko lanak bildu, egituratu, osotu eta orraztuz, *Fisia* (1935) eta *Kimia* (1936) liburuak eskaini zizkigun. Bazeukan natur zientziei buruzko beste bat *izadi-iztia* argitaratzeko asmoa ere. *Pisia* liburuak izugarritzko arrakasta izan zuen, hilabete batzuren buruan agortu zelarik. Honela dinosku berak: "Gernika"ko Aboitiz-Musatadi

Aita Gabirel Jauregi Utibarren 1895 - 1945



sendi ospatsuari eskerrak, *Pisia* Euzkadi osoan erein neban; erein bakarrik ez, iru illabete barru emondako diruak eskuratu be bai”. *Kimia* argitaratu eta behala sortu zen gerra eta horrek eten zuen Gabirelen euskararen aldeko lan paroa.

Zer esanik ez aitzindari izan genuen euskara zientzia alorretara eramateko ahaleginetan. Garaian garaiko hizkuntz-joeren bidetik idatzi zuen, bere kabuz hainbat hitz sortu beharrean aurkitu zela. Hala ere, beti euskara erraza erabiltzen saiatu zen. Jazoera kimiko eta fisikoak jendarengana hurbildu zituen, “ikastza, ogia, esne-azukera...” egitean gertatzen diren gorabeheren berri eman ez. Esan dugun bezala, gerrateak moztu zuen goitik behera idazle gazte haren lana eta lan horrek ekar zezakeen onura.

3. GIZA-IZAERA

Lagun eta irakasle izan zuten hainbat karmeldarrek begikotasunez gogoratzen dute oraindik. Horien artean dugu Aita Migel Angel Batiz, filosofian, ikasturte bitan (1934-1936) Aita Gabirelen ikasle izandakoa. Praile honek dinosku, erlijioso osoa eta irakasle ona zela. Ez zuela ikasgelan bereizkeriarik egiten; bere eginbeharrak argi ikusirik, gogoz bultzatzen zituela ikasleak gaiak ikastera; Fisika eta Kimikan gutxi ulertzen zutela ikustean, irribarre egin eta alorrek azaltzen jo eta ke ahalegintzen zela. Ahalegin handiak egiten zituela gaiak, Cervantes-en hizkuntzan azaltzen, baina erdara traketsa, sarritan euskarakada handiak tartean sartuz, erabiltzen zuela. Giza harremanetan, osterara, buru eta bihotz, bakea eta benetako adiskidetasuna bilatzen zituela eta guzti hori lagunarteko hizkera samurra erabiliz; erdara egiterakoan ez ziola garrantzirik ematen, tarteka-marteka, euskarakadaren batzuk sartzeari.

Harremanetan hain tratu onekoa eta bihozbehera izateari esker, laster bereganatzen omen zituen ingurukoak. Etxekotzat hartzen zuten hainbat familia ezagutu zituela Gasteizen, eta bere bihozbeheratasuna eta eskuzabaltasuna go-raipatzen zutela guztiek. Izan ere, inguruko saminen berri jakiten ahalegindu eta larrialdian edo nahigabea zeudenei laguntza ematen jakin omen zuen. Jendaren aldetik benetan maitatua izatea lortu zuela.

Zientzia gaiak bihotzez bizi izan zituen: adibidez, bera irakasle zela irriatiak sortu berri ziren Euskal Herrian; eta hain gogoz bizi zuen asmakari berri hori, behingoan eskuratu zuen irriati-aparatutxo bat. Haren poza! Ume bat jostailu berriarekin baino pozago omen zebilen. Ikasleei deitu, eta “Begira, begira” esanez erakusten eta entzunarazten iharduten omen zuen. Zeozer ulertzeko ahaleginak egiten... ikaragarritzko zaparrada egiten zuen eta ikasleak esaten omen zioten: “Baina ez da ezer ulertzen eta!”. Bera, baina, pozik zatatatsua izan arren entzun egiten zelako. Ilusio zer den, gero!

Gauza teknikoak erakargarriak ziren harentzat. Argazki-makina oso maite zuen. Txitean-pitean ikusten zuten argazkiak egiten. Gutxi, baina badira oraindik hark egindako argazki banaka batzuk.

Beste behin eklipse bat ikustearren Valdecaray-ko mendi tontorrera joan zen.

Zertzelada hauetan, labur bada ere, garbi ikusten dugu haren giza izaera eta batez ere zientzietarako zeukan joera edo zaletasun bizia.

AITA GABIREL JAUREGI

Aramaio, 1995-04-01

Patxi Uribarren

AURKEZPENA

Omenaldi bat egiterakoan, egokiena eta geroko geratzen den gauzarik interesgarrienetakoa liburua izaten da. Eta hau kontuan izanik, uste genuen euskal zientzi gaitan aitzindari izan zen Aita Gabirelek ongi merezia zuela omenaldi egiteko honelako liburu bat.

Aita Gabirel Jauregi Uribarren (1895-1995) izenburuaz bi eratako argitarapena egin dugu: *Karmel* aldizkari erakoa eta *Karmel-Sorta* erakoa. 512 orrialdeko liburua.

I. Edukia

Liburuak lau atal nagusi ditu. Eta orain lau atal nagusi horietako gaiak eta egileak jakinarazi nahi dizkizuet.

1. Lehenengo atalean hiru idazlan dira: A. Lobera, Patxi Uribarren, Luis Baraiazarra eta J. Urkizak eginak: Munduko eta Euskal Herriko 50 urteko gertakari nagusienak agertzen dira, A. Gabireli eta Euskal Herriari dagozkionak, gizarte eta politikari dagozkionak, Euskal Herriko eta munduan zeharreko Elizari dagozkionak, arte eta kulturari dagozkionak; eta datu hauek labor-labor eta irudiz horniturik, irakurterrazago eta atseginago egiterarren. Gabirelen bizitza gai nagusi gisa harturik azaltzen da, eta gainera haren bizitzako giza zertzelatxoak.

2. Bigarren atalean Aita Gabirelen lanei buruz egindako bost idazlan datoz: haren *Pisiari* buruz (J.R. Etxebarriak egina), haren *Kimiari* buruz (J. Iturbek), haren astronomiako lanei buruz (J. Arregik) (barkatu, egilearen izena gaizki etortzea); gero A. Loberak Aita Gabirelen itzulpen-lana azaltzen du. Era berean hor aurkituko duzue Aita Gabirelen eta hari buzko lanen bibliografia, J. Urkizak egina.

3. Hirugarren atala luzeena dugu: eta gaia Aramaio herria bera. Hemen bi gai nagusi daude:

- a) batetik Hizkuntza (Euskara eta euskal literatura);
- b) bestetik Historiari dagozkion lanak, gizarte eta erlijioarekin loturik:

Aramaioko euskarari buruz ikerlan luze eta interesgarriak daude: Gotzon Garatek (Aramaioko bizkaiera), Isaak Atutxak (Aramaioko euskara), Pedro Puxanak (Hikako berbetea Aramaioko Muxika-Oletan), Patxi Uribarrek (Aramaioko Toponimia) eta Patxi Salaberrik (Hizkuntz errealitateaz) eginak. Eta euskarari buruzko lan hauek osotzeko, Luis Baraiazzarren artikulua agertzen da (Aramaioko euskal idazleei buruz).

Historia lanei buruz beste sei idazlan daude: J.R. Elejaldek labur-labur Aramaioko historia azaltzen du, eta Antonio Unzuetak bertako orain dela ehun urteko erlijiotasuna. Floren Unzuetak Aramaioko musikariei buruz idatzi du, eta Patxi Salaberrik 1899ko Aramaioko Euskal Jaiak gogorarazten ditu. J. Martinez Montoiak Aramaioko “auzotasuna edo nekazal hiritartasuna” du gaitzat. Eta azkenez, Txema Preciado de Ocariz-en lanak izenburu hau du “Ze kolore ezauketan dozu?”.

4. Laugarren atalean gehigarriak jarri ditugu, A. Loberak eta J. Urkizak prestatuak.

a) Aita Gabirelek *Karmengo Argia* aldizkarian egindako lan laburrak argitaratzen ditugu: batez ere *Pisia*, *Kimia* eta *Izadi-Iztiari* buruzko lanak. Gerra aurreko aldizkari hau agortuta dago, eta orain abagune honetaz baliatu gara irakurleari esku-eskura jarri eta ezagutarazteko. Idazlan labur hauek badute garrantzi eta interesik: gero aterateko zen *Pisia* eta *Kimia* liburuen aurreko saio-
txoak edo zirelako hemen idatzi zituenak.

b) Bigarren gehigarria Aita Gabirelen anaiari dagokiona da: Angelo Jau-regi, Gabirel baino ia bi urte gazteago izan zena. Biek batera egin zituzten ikasketa guztiak. Karmengo Ordenan kargu asko izan zituen eta baita lan asko egin ere: Euskal Herrian, Portugalen eta Txilen... Baina beti euskara eta euskal gaiak gogoan zituela: Portugaleko *Carmelo* aldizkaria sortu zuen. Honen idazlanak Kolonbia, Txile, Mozanbiki, Argentina, Espainia eta Estatu Batuetako hainbat aldizkaritan agertu ziren.

Euskara eta euskararen gainean idatzi zuen; euskal gaien inguruan idatzi zuen portugesez eta gaztelaniaz ere. Gu euskal lanei lotuko gatzazkie eta honako hauek aipatuko ditugu: *Euskal-iztia* (Gramática Vasca) (1961); euskal aditzaz (euskalki guztietako aldaerez) idazlan mardula idatzi zuen; horren erakusgarri, haren eskuizkribuen argazkia duzue liburuan.

Gehiegarri honetan Aita Angelo Jauregik *Karmengo Argia* aldizkarian idatzitako lanak argitaratzen ditugu.

II. Eskerrona

Lehenengo eta behin lehen aipaturiko idazleak eskertu behar. Batez ere Patxi Uribarren eta Anjel Lobera, berauen idazlanengatik ez ezik, liburu hau atontzerakoan eskaini duten laguntzagatik. eta batez ere Jesus Arregi, huts bat dela bide, liburuan eskertuen artean agertzen ez delako.

Omenaldiko liburu hau argitaratzeko bi erakunde hauei eman behar dizkiegu eskerrak: Aramaioiko Udalari, bere seme argi eta ospetsu hau gogoratze-ko egin dituen ahaleginengatik; eta Arabako Aldundiari, argitalpen honen gas-
tuak ordaintzen laguntzeko hitza eman digulako.

III. Esan behar amaitzeko, omenaldiko liburu hau Aramaio herriarentzat gertakari bibliografiko sonatu bat dela, eta Arabarentzat benetan harro eta pozik egotekoa, bere semeen artean euskara zientzi gaietan erabiltzen aitzindari bat izan duelako, eta beste aramaioar bat, Barrutia, hau ere aitzindaria euskal literatura antzerki gaietan erabiltzen.